

# Gogoan hartu damutu baino lehen

**Ferrerres & Solé**  
Correduria de Seguros, S.L.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina  
Nº 65 / Uztailen 2018

## #Gustuko dut sare sozialetako zure #Postureoa oporretan... errazago lapurtzeko



"Guri etxean lapurtu ziguten joan zen udan. Itxura guztien arabera, Facebooken jarri nuen datu bategatik izan zen. Oporretara joatekoak ginen 2 astean, eta argitaratu egin nuen. Itzuli ginenean, hankaz gora aurkitu genuen etxea: telebistak eta ordenagailuak eraman zituzten".

Ertzaintzaren arabera, #Lapuraren eta #Biktimaren arteko lotura bakarra zen #Lagun batek #BoloniakoHondartzara ere bidaiatu nahi zuela idatzi izana.

Ertzaintzaren arabera, "oro har, **jen-deak ez du lotzen argitaratzen duena jasandako delituren batekin. Zintzilikatzen denaren inguruko kontzientzia eskasa egoten da. Eta sare sozialetan ikertzea da gaizkileen metodo berrietako bat. Zaintza fisikoa egitea baino merkeagoa eta errazagoa da. Informazioa partekatzeke pentsatuta daude sareak, ez babesteko. Pentsatzen dugu ez dugula zer ezkutatu, baina hobe da babestea".**

### Egunean 310 lapurreta nola saihestu

Espanian, 310 lapurreta izan dira egunean, batez beste, eta gehienak udan

eta asteburuetan izaten dira. Pertsianak guztiz ez jaisteko eta auzokoari tarteka postontzia husteko eskatzeko esateaz gain, ondorengo aholku birtual hauek eskaini nahi dizkizugu.

**#Instalapurak #Facelapurak** Ez igo argazkirik; oso deskonektatuta zaude la pentsatu behar dute zure senide eta lagunak, ez duzula sareetan argazkiak argitaratzeko astirik.

**#LagunfluencerrikEz** Zure bidaideek uste badute euren milioika (edo hamarreko) jarraitzaileek eruen mugimendu bakoitza jakin behar dutela, debekatu iezaiezu etiketa zaitzaten. Etiketatzen bazaitzute, zure arreta edo neurri guztiek ez dute ezertarako ere balio.

**#Itzulieginnahidut #MissYou** Hobe da #PostureoGeroratua, etxera iritsi ondorengo. Orduan igo zure argazkiak, eta albumak traol hauekin etiketatu.

Bete aholku hauek. Lagunek zurekin gozatuko dituzte oporretako gorabeherak, edo inbidiaz beteko dira, baina zure etxea salbu egongo da. **Gainera #EtxeAseguru batekin babesten baduzu, hobe!**

### Denak uretara

Zuk zer nahiago duzu, igerilekua edo hondartza? Agian, igerileku komunitarioa duzu etxean, itzal eta guzti, eta ez duzu eguzkitakorik behar. Ur gezatan bainatzen zara, ur garbitan, ez dago hondar-ekaitzik. Intimoa-goia eta erosoagoa da beti.

Espaniako igerileku guztiak zabalik daude, baina bere **autonomia erkidegoko** arauak bete behar ditu bakoitzak. Udal batzuek beste udal ordenantza batzuk ere badituzte, guztiok errespetatu beharrekoak.

**Jabekide komunitateak** zaindu behar du igerileku pribatua behar bezala erabil dadin. Orduetgia, funtzionamendua, estatuak... Hona hemen arau orokorrak:

- **Sorosleen** jarraibideak eta **barne erregimeneko araudia** bete, ikusteko moduko lekuetan egongo da hori.
- **Oinetako egokiekin** sartu.
- **Dutxatu**, sartu aurretik.
- **Ez gauzarik bota** uretara.
- **Animaliak debekatuta daude.**

Batzuetan, min hartzen du norbaitek. Bere errua izan daiteke, edo komunitatearen zabarkeria. Orduan...

### "Ez naiz ni izan..."

Igerilekua ez bada segurua edo sorosleak kale egiten badu, komunitatearena da biktimari kalteak ordaintzeko erantzukizuna. Legeak ez du behartzen Erantzukizun Zibileko aseguru bat kontratatzea, baina oso komenigarria da edukitzea. Halakorik ez badago, jabeak dira errudun, eta kalteak ordaindu behar dituzte.



## Gidari ona bazara... errespetatu txirrindulariak



"Harro sentiarazten nau hirietako zein hiri arteko bideetako txirrindulari izateak; gidari batek, edozein arrazoi medio-buruak imajina ditzakeen askotarikoen artean- harrapatu izanagatik, egunen batean egunkari honetako edo beste bateko berrietan biktima moduan agertu naitekeela pentsatzeak, berriz, batere ez, eta ondoren etor daitekeena susto handi bat edo gertakaria kontatu ezin izatea ekar dezake".

(José Luis Santos Cela, Diario de León)

Igandeetarako ez ezik, lanera edo erosketak egitera joateko ere balio dute bizikletak. Hirietan eta errepideetan, ordea, arrisku ugari dituzte txirrindulariek: autoak, autobusak, motorrak, kamioiak... Heriotza eragin dezakete, arauak ez bada errespetatzen. Gidarien eta txirrindularien arteko bizikidetzarako konponbidea ez da bidegorri gehiago egitea, errespetua baizik.

### Ahulena

Honela diote txirrindularien zirkulazio-arauek:

- Helduek **kaskoa** eraman behar dute

hiri arteko bideetan, eta 16 urtetik berherakoek ere bai, hirian.

- **Ez dute telefono mugikorrik edo aurikularrik erabiliko.**
- **Autobietako (ez autobideak) bazterretatik** zirkula dezakete, kontrako seinalerik ez badago.
- Hirian, **bidegorria** erabili behar dute, eta ez badago, **kaltzadatik** joango dira. **Ez dituzte espaloiak erabiliko**, berariak adierazi ezean.

Motorrezko ibilgailuen betebeharrak guztiak bakar batean laburbiltzen dira: **txirrindulariek lehentasuna dute pasatzeko, ahulagoak direlako.**

**Bizikletak ez daude behartuta aseguru bat kontratatzea, baina guk kontratatzea aholkatzen dugu. Ez behar batean eragin ditzakezun edo eduki ditzakezun kalteetatik babesten zaitu** (osasu gastuak barne hartzen dituzte). Lapurreta kasuan ere estaltzen zaitu, bizikletaren konponketak ordaintzen ditu ohiko desgastearen ondorio ez badira, eta isunak kudeatzen laguntzen dizu.

### Ikerketa

## Lasai... Zure autobus edo hegazkin txartelak aseguru du barne hartuta

Garraibide publiko guztiek **bidaariaren nahi-taezko aseguru** kontratatzeke betebeharra dute. Ez egitea delitua da. Bidaari batek izan ditzakeen gorpuzteko kalteak estaltzen ditu. Autobusean, taxian, trenean, hegazkinean edo itsasontzian bazoaz... erosten duzun txartelak aseguru du barne hartuta. Berdin da lanera zoazen edo Laponiara, plazerrezko bidaiari.

Horrez gain, **Erantzukizun Zibileko aseguru bat** ere badute garraibideek, gidariak besteri, bidaiari barne, eragin diezazkiekeen kalteak estaltzen dituena.

Lasaiago zaude, orain?



### Bulegoan

## Nire lagun batek istripu bat badu, nire autoa gidatzen ari dela... Nik ordaindu behar dut?

Cristina 2 lagunekin joan da oporretan, bere autoan. Txandaka gidatzen dute, gutxiago nekatzeko eta, bide batez, erregaia aurrezten dute, gutxiago kutsatzen dute eta dibertigarriagoa da. Gidatzen ari zela, Lolik, lagunetako batek, motor bat jo du.

Lasai, aseguruak ordainduko ditu-eta kalteak. Baina kontuz!, Lolik hainbat baldintza bete beharko ditu babestuta egoteko, aseguru-etxe bakoitzaren arabera. Polizek 26 urtetik gorako noizbehinkako gidariak sartu ohi dituzte, gidabaimena gutxienez bi urte lehenagotik dutenak.

**Salbuespena:** Drogak edo alkohol gehiegi detektatzea.

